

ALFONTSO XII



IZAS ETA GARAZI


Alfontso XIII.a (1886-1941)

Bizitza: Espainiako Errege (1902-1931). Alfontso XII.aren semea, Madrilén jaio zen aita hil ondoren eta errege izendatu zuten jaio zen egun berean, M^a Kristina de Habsburgo, bere ama, erregeorde zelarik. Victoria Eugeniarekin ezkondu zen egun berean atentatua izan zuten. Ez zitzaien ezer gertatu. II. Errepublikak ezarri zenean, Alfontso XIII.a Frantziara erbesteratu zen eta, gero Erromara. Han hil zen.



Bereizgarriak

- 1902-1913: 98ko porrotari buelta eman nahian. Krisi ekonomiko eta politiko ugari. Euskal eta kataluniar autonomismoak. Langile mugimenduak. Marokoko gerra. Bartzelonako Aste Tragikoa.
- 1913-1917: Txandatzeko sistemaren ahultzea. I. Mundu-Gerra (neutral).
- 1917-1923: Herritarren botoak du garrantzia. 1917ko iraultza. Iraultza sobietarrak eragina du Andaluziako nekazariengan.
- 1923-1930: Primo de Rivera-ren diktadura. Donostiako Ituna. Jakako altxamendua.
- 1931: II. Errepublika: Alfontso XIII.a Frantziara erbesteratu zen eta, gero Erromara. Han hil zen.



Gizartea

- Talde txiki batek eragin handia zuen = Goi mailako burgesia + Lurjabe handiak. Kazikismoaren bidez dominatzen zuten. Kontserbadoreak. Eliza eta Armadari lotuak.
- Klase ertainak: profesionalak, nekazariak (jabeak), artisauak...
- Nekazariak (jornalariak): gaizki bizi ziren.
- Fabriketako langileak: oso baldintza txarrak.

Sistemaren oinarriak

Interesatuak: noblezia, armada, eliza, burgesia, kolonietan interesak zituztenak, klase ertainak. Hauen laguntzaz antolatu zen erregimen berria. Ordena bermatuko zuen erregimen bat nahi zuten eta aurreko egonezin politiko sozialak errepikatzeari ekidin.

Interesak

- Nobleziak eta lurjabe handiek bere pribilejiozko egoerari eutsi nahi zien eta estatuaren gobernuan parte zuzena hartzen zuten.
- Burgesiak ere gobernuan parte zuzena hartzen zuten eta langileen lorpenak hutsean uztea lortu zuten. Horrela, inolako trabarik gabe ekin zien bere negozioei.
- Elizak Seiurtekoan sekularizazioaren alde hartutako neurri gehienak ez deusean uztea lortu zuten eta heziketaren kontrolatzaile gisa iraun zuten.
- Armada gustura zegoen Alfontso XII.a erregearekin, aginte zibilaren pean izan behar arren, autonomia handia utzi baitzion.
- Kolonietan interesak zituztenek esklaboak askatzeko eta koloniei autonomia emateko egin ziren saio guztiak bertan behera uztea lortu zuten.

Oinarriak

- 1876ko konstituzioa.
- Bi alderdien txandatzeko baketsua eta Pardoko Ituna. Bi alderdi nagusitu ziren
 - Alderdi Liberal Fusionista, Praxedes Mateo Sagasta buru.
 - Liberal Kontserbadorea, Antonio Canovas del Castillo buru.

CANOVAS eta SAGASTA-ren arteko akordioa, Alfontso XII.a hil zenean (1885-XI-25). Kontserbadoreen lekuan liberalak jarriko ziren, Canovas beste altxamendu baten beldur baitzen (errepublikar edo karlisten aldetik).

Armada: Berrezarkuntza garaian, aginte zibilaren pean geratu zen, Isabel II.aren erreinaldian gertatu zen bezalako militarren etengabeko esku hartzea saihestu nahian. Erregea monarkia parlamentarioaren buru nagusi izateaz gain, Armadako buruzagi nagusia ere izango zen. Horren truke, autonomia handia eman zitzaien bere eremuko gai batzuetan: hierarkia militarra, Afrikako politika...

Karlistak: 1876an menderatu zituzten betirako eta Karlos VII.a erregeahiak erbestera alde egin zuen.

Kuba: 1878ko neguan, Zanjongo bakea sinatu zen, baina ez zen bake definitiboa izan.

MONARKIAREN KRISIA (MONARKIA PARLAMENTARIA)

a) Bartzelonako Aste Tragikoa:

- Bartzelonan, uztailaren 26tik abuztuaren 1 arte.
- Alfontso XIII.aren garaia zen, greba orokorra, barrikadak... Eliza ugari erre zuten, erlijioaganako gorrotoa handian baitzen sektore batzuetan.
- Afrikako gerrarako soldaduak mobilizatu zituzten eta, batez ere, behe mailakoak ziren. Aberatsen semeek kuota bat ordainduz libratzen ziren. Egonezin horrek protestak probokatu zituen.
- Azpimarratzekoa: errepublikazaleak, anarkistak eta sozialistak batera aritu ziren protesta honetan.
- Errepresio gogorra izan zen. FRANCISCO FERRER GUARDIA fusilatu zuten. Protestak Europan: MAURAK agintea utzi beharra izan zuen eta CANALEJAS jarri zen bere ordean.

b) 1917-ko krisia:

Egoera orokorra

- Canovas eta Sagastaren ondoren arazoak ugariak ziren, militarrek ez zeuden gustura eta gero eta nabariagoa zen haien egonezina, langileria gero eta indartsuago ari zen bere helburuak bete nahian... 1917an egoera lehertu egin zen: militarrek Juntak antolatu zituzten, indar politiko ez dinastiazaleek Parlamentari Batzar bat antolatu zuten eta langileen erakundeek greba orokorra egin zuten abuztuan.
- Erregimena ahulezia handian zegoen eta ez zen gizarte espainiarrak egiten zituen eskari berriei erantzuteko gauza. Gobernua behin eta berriro erori zen (14 gobernu 7 urteetan!) eta Primo de Riverak eman zion amaiera definitiboa bukatuta zegoen sistema hari.

Egoera ekonomikoa

- 1914. urtean hasitako I. Mundu Gerran, Espainia herri neutrala izan zen eta hiru une desberdin bizi izan zituen bere ekonomiak gerra hark iraun zuen bitartean
 - Noraezean eta antolaketarik gabe jardun zuen gerrako lehen urtean.
 - Zabalkunde unea izan zuen eta gerra bukatu arte luzatu zen.
 - Armistizioaren ondoko krisia.
- Ekonomia zabaldu zen unean, kanpoaldeko eskaria hazi egin zen, inportazioak murriztu eta industrializazio prozesua bizkortu. Eskariaren hazkunde azkar honen eraginez, prezioek gora egin zuten eta ekonomia nabarmen bizkortu zen: elkarte berriak sortu ziren, inbertsio maila hazi egin zen eta etekinak handitu ziren. Horrela, Espainiako Merkataritza Balantzaren emaitza positiboa izan zen lehen aldiz XX. mendean.
- Nekazaritza alorrean ere, ekoizpena hazi egin zen, baina landuriko lurren azalera handitu zelako izan zen. Hala ere espekulazioak ere berea egin zuen eta prezioen igoera azkar batek guztiz larritu zuen eguneroko mantenuaren arazoa; laborarien bizi baldintzek okerrera egin zuten eta askok hirirantz jo zuten.
- Industria alorrean, inportazioak murriztu zirela-eta, ikatza garestitu egin zen, ondorioz bizitzaren kostua handitu zelarik. Baina ehungintza, kimika, burdingintza eta armagintza alorreko industria izugarri hazi zen aldi berean.
- Ikatzaren prezioa eta langileen soldatak hazi ziren neurrian, burdinbide konpainiak etekinik gabe geratu ziren.
- Baita ere esan beharra dago, soldatak ez zirela prezioak bezainbeste igo eta langileen egonezina izugarri areagotu egin zela.

Krisi militarra

- 1916an sortu ziren Defentsa Juntak Infanteriako adarrean, militarrek bizi zuten egonezinaren adierazgarri gisa. Sindikatu militarren antzera jardun zuten hasieran eta honako eskaera hauek egin zituzten
 - Antzinatasunean oinarrituriko gradu goratzeak ezartzea.
 - Jardunean ari ziren ofizialei proba fisikoak eta profesionalak kentzea.
 - Hutsik geratutako postuen mantenua.
 - Izendapenetan errege faboreak desagertzea.
 - Soldaten igoera bizi kostuaren arabera egitea.
 - ...
- Azkenik, 1917ko udan argi eta garbi eskatu zioten erregeari gobernu bat izendatu eta, militarren kontrolpean betiere, beste Gorte Konstituziogile batzuetarako deia egin zezala.

Krisi politikoa

- Espainiak 1917an bizi zuen egoera soziopolitikoak argi eta garbi utzi zuen Canovasen sistema bukatuta zegoela. Txanda sistema hartatik kanpo zeuden indar politiko eta sindikal berriek, berriz, sistema hartatik kanpoko espresio bideak bilatu beharrean izan ziren. Hauek ziren indar sortu berrietako batzuk: Conjunción Republicano-Socialista, Lliga Regionalista, EAJ-PNV, PSOE, UGT, CNT eta SOV.
- Militarrek bere eskarien bidez azaldu zituzten asmo berritzaileek bultzatu zituzten erregionalista kataluniarrak Espainiako bizitza politikoa eraberritzeko mugimendu bat egituratzera. Bilera batera deitu zitzairen parlamentari kataluniar guztiei eta uztailaren 5ean bildu ziren Bartzelonako Udaletxean. Eskaera hauek egin zituzten
 - Autonomia Kataluniarentzat eta neurri beretsuak estatu guztian.
 - Gorteen bilkura berezia, udalen eta lurraldeen autonomia, militarren arazoa eta egoera ekonomikoa aztertzeko.

Gobernuak eskari horiei emandako ezezkoaren ondoren, Parlamentarien Batzar Nazionala bildu zen Bartzelonan uztailaren 19an. Erreformistek, errepublikazaleek, sozialistek eta erregionalista kataluniarrek esku hartu zuten bilera hartan. Kontzentrazio gobernu bat eratzea erabaki zuten, Gorte Konstituziogileetarako hauteskunde garbiak prestatzeko asmoz. Gainera 3 batzorde sortu zituzten

- Lehenak udalen eta lurraldeen autonomia eta Konstituzioaren erreforma aztertuko zuen.
- Bigarrenak defentsa nazionala eta irakaskuntzaren eta justizia administrazioaren eraketa.
- Hirugarrenak arazo sozio-ekonomikoak.
- Euskal Herrian ere autonomiaren aldeko mugimendua indartu egin zen. Gobernuak Etekin Bereziak arautzeko lege proiektua aurkeztu zuen eta honek, Kontzertu Ekonomikoa ez zuela errespetatzen-eta, aurkako mugimendua bizkortu zuen Euskal

Herrian. Giro hartan, bilera berezi bat egin zuten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioek eta eskaera hauek egin zizkioten Gobernuari

- Ahalik eta autonomia maila handiena nazioaren batasunaren mugen barnean, eta Diputazioak buru zirelarik.
- Foruak berrezartzea.

1917ko greba orokorrak eten egin zuen kanpaina hura eta eskaera hauek ez zitzaizkion abendura arte Gobernuari aurkeztu. 1918. urtean autonomiaren aldeko kanpaina biziagotu egin zen eta inoiz onartuko ez zen Estatutu proiektu bat prestatzen hasi ziren.

Krisi soziala

- Mundu Gerra hasi zenetik eta prezioen gorakadaren ondorioz, izugarri hazi zen herriaren egonezina eta, aldi berean, hazi ziren baita ere, agitazio giro soziala eta gatazkak, soldata igotzeko eskaerak gehienetan. Horrela iritsi ziren 1917ko abuztuko grebara. Uda baino lehenagotik hasi ziren anarkistak, errepublikazaleak, sozialistak eta erreformistak greba prestatzen; sistema krisian zegoela-eta, Parlamentarien Batzarrean esku hartu zuen burgesiak lagunduz gero, aldaketaren aldeko aukera handiak ikusten zituzten.
- Tren langileen grebak egin zion sarrera greba orokorrari, kaleratutako 45 langile berriro hartzeko eskatuz. Berehala, greba Espainia osora zabaldu zen eta orokor bihurtu zen, Madril eta Bartzelonarako prestatuta zegoena berehala zabalduz Bilbo, Valentzia eta Santiagon.
 - Gobernuak bazuen prestakuntza haien berri, eta greba ahalik eta azkarren leherrarazten saiatu zen, behingoz batuta zegoen oposizioa banatzeko.
 - Parlamentarien Batzarreko kideak banatu egin ziren
 - Ezkerrak sostengua eman behar izan zion grebari.
 - Eskuinak izaturik zegoen istiluen beldur.
 - Militarrek, langileen matxinada giro hura ezin eramanik, gobernuari lagundu zioten bete-betean. Grebalarien aurkako errepresioaren ondoren, herrian ordura arte gordea zuten izen ona galdu zuten militarrek.
 - Sozialistek ez zuten une horretan grebarik nahi, burgesiak agindutako laguntzak galduko zituztelako, eta uneoro saiatu ziren langileek burgesiak onartzeko moduko eskariak egin zituzten.
 - Greba abuztuaren 13an hasi zen eta industrialdeetara zabaldu zen nagusiki. Greba Batzordeko kideak atxilotu zituzten hurrengo egunean eta Datoren kabineteak gogor erreprimitu zituen manifestaldiak: 80 hildako, 150 zauritu eta 2 000 atxilotu baino gehiago. Greba ahulduz joan zen eta hilaren 19an amaitu egin zen.
- Euskal Herrian ere langile agitazio giroa nabaritu zen eta, hemen ere, soldaten igoera izan zen eskari nagusia. Bilbon izan ziren istilu larrienak eta 14 pertsona hil ziren egun haietan.

Porrotaren arrazoiak

- Greba goizegi hasi zen eta ondo koordinatzeko denborarik ez zuten hartu.
- Ustearen kontra, armadak Gobernuarekin kolaboratu zuen eta aurre egin zien grebalariei.
- Burgesiak eta alderdi errepublikazaleak iraultza sozialaren beldur ziren eta grebari aurre egin zioten.
- Sindikatuak banaturik zeuden. CNT-k eta UGT-k ez zituzten ekintzak koordinatu.
- Laborariek ere ez zuten greban parte hartu.
- Greba Batzordea atxilotu zutenean, gidaritzarik eza.

